

Herri-galdeketa apirilaren 25ean

Lurrazpiko zabor-erakundearen gaineko kontsulta egingo du Lasarte-Oriako Udalak; emaitza loteslea izango da / 2

Bikoizketaren egoeraz

Jexux Izeta eta Pello Artetxe bikoizle lasarteoriarrek sektorearen egoera aztertu dute / 6-7

Koronabirusa, berriz ere oldartuta: eremu gorrian dago Lasarte-Oria, murrizketa gogorragoekin / 5

Hernani Errugbi elkarteak kide Paola Vega jokalariekin denboraldi hasierari buruz solasean / 10

TXINTXARRI

SUPERFAMILIA PLANA!

%30 des-kontua

VARILUX
ESPECIALISTA

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com   



Apirilaren 25eko herri-kontsultarako bozka-paperak, iruditan. Galdera bakarra eta bi erantzun posible izango dira. TXINTXARRI

Apirilaren 25ean, herri-kontsulta, Lasarte-Orian

Datorren asteko igandean egingo du Lasarte-Oriako Udalak lurrazpiko zabor-edukiontzien gaineko herri-galdeketa. Kontsultaren emaitza "loteslea" izango dela azaldu dute Agustin Valdivia alkateak eta Nagore Duran Herritarren Partaidetzarako zinegotziak

Txintxarri

Datorren asteko igandean jasoko ditu Lasarte-Oriako Udalak lurrazpiko zabor-edukiontzia mantentzeki edo kentzeki buruzko herritarren iritzia, apirilaren 25ean. Horrela jakinarazi dute Agustin Valdivia alkateak eta Nagore Duran Herritarren Partaidetzarako zinegotziak, astelehen goizean egindako prentsurrekoan.

Azaldu dute jakin badakitela herritarren artean "eztabaida irekia" dagoela zaborrak kudeatzeko erabili beharreko eredurik onenaren gainean, eta gaiaren inguruan erabaki bat hartu aurretik, lasarteoriarrei hitza ematea erabaki du. Herri-kontsultan parte hartzeko deia luzatu dute udal-ordezkariek.

Apirilaren 25ean izango da herri-galdeketa eta 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara izango dute herritarrek bertan parte hartzeko aukera. Sei gune

zehaztu dituzte horretarako: udaletxeko erregistroa, kultur etxea, Mirentxu, pabiloia, gaztelekua eta Basaundiko bulegoa. Sei leku horietako edozein, baina bakarrera hurbildu beharko dira, herritarrek, bozka ematera.

Jakinarazi dutenez, Lasarte-Orian erroldatuta dauden 18 urtetik gorako pertsonak izango dute bozka emateko aukera.

LASARTE-ORIAN ERROLDATUTA EGON ETA 18 URTE EDUKI BEHAR DIRA PARTE HARTU AHAL IZATEKO

**10:00ETATIK
14:00ETARA
ETA 16:00ETATIK
20:00ETARA
BOZKATU AHALKO DA**

Hautetsontzian emango da bozka boto-txartelen bidez eta gutun-azal itxian. Boto-txartelak eta gutun-azalak bozketa-lekuetan egongo dira. Gainera, sistema informatiko bat erabiliko dutela ere azaldu dute.

Boto-txartelak ere erakutsi dituzte prentsurrekoan eta honako galdera agertzen da horietan: *Zer egin behar du udalak egungo lurpeko edukiontziekin?* Erantzun posibleak, ordea, bi izango dira: mantendu edo ezabatu. Parte hartzera joaten den herritar bakoitzak eman nahi duen bi erantzun horien araberako boto-txartela aukeratu du.

Herri-kontsultaren emaitza loteslea izango dela ere azpimarratu dute, baldin eta gutxienez, herritarren %30ak bozkatzeko badute. Hori horrela gertatu ezean, udalak "ikusiko du" zer egin.

Informazio osatua www.txintxarri.eus helbidean.



Udal-korporazioko kideak, apirilaren 8ko saioan. LASARTE-ORIAKO UDALA

Etxebizitza eskuratzearen aldeko neurriak adostu dituzte

Ohiko udalbatzarra egin du udal-korporazioak apirilaren 8an; etxebizitza-eskubideaz aritu dira, besteak beste

Txintxarri

Udalbatzarra hasi eta berehala, aho batez onartu ditu korporazioak 2020an eta 2021ean egindako zenbait bilkuraren aktak. Horren ostean, udaletxean lan egiteko informatika-teknikariaren lanpostua sortzeki buruz enpresa-batzordearekin akordio batera iritsi dela jakinarazi du alkateak. Hori horrela, ELOP alderdiak aurrekontuei aurkeztutako emendakinetako bat bertan osatua ez zegoelako. Aztertzeke dauden alorrak Consultores de Gestion Publica SL enpresak jorratu ditu, eta txosten bat egin. "2022. urtean lanpostu hori sortzeko alde bozkatu genuen, uste dugulako beharrezkoa dela udalaren jardunerako", azaldu du EH Bilduko bozeramaile Jon Martinek. "Udal Gobernuak ez ditu erantzukizunak hartu eta ez du kudeatu; noizbait iritsiko

den antolakuntza-txostenaren atzean ezkutatu da".

Etxebizitza duinak eskuratzeko arazoari buruz jardun dira korporazioko kideak, luze eta zabal. ELOPek aurkeztutako mozio bat landu dute aurrean. "Aloka iruen prezioen espekulazioan" jarri du arreta, besteak beste. EH Bilduk hala eskatuta, mozioa puntuka bozkatzeko erabaki dute. Bat bera ere ez da aurrera atera. EAJ-PNVk mozio alternatibo bat aurkeztu du, eta hainbat neurri adostea eskatu. EH Bilduk bat egin du jeltzaleen mozioarekin; ELOPek. aldiz, aurka bozkatu du. PSE-EEk ere eman du gaiarekiko bere ikusputua.

Saioa amaitu aurretik, galdera eta erreguen txanda ireki da eta ELOP eta EH Bilduk gai bana mahaiganeratu dute: ortu ekologikoak eta udaletxea garbitzen duten langileen afera.

"Ekintza bandalikoak" salatu ditu Lasarte-Oriako Udalak

Sasoeta ikastetxean egin dituzten kalteak salatu ditu udalak. Arbuiatu egin ditu ekintza horiek, eta, "erantzukizun eta gizalegez" jokatzeko deia egin diete herritarrei: "Gertaera horiek guztioi kalte egiten digute".

Bide batez, edozein ekintza bandalikoaren lekuko izanez gero, Udaltzaingoari (943 37 67 90) jakinarazteko eskaera ere luzatu

diete lasarteoriarrei, erantzuleak identifikatu ahal izan daitezen.

Gertatutako kalteen ondorioz, patioa aldi baterako itxita egongo dela jakinarazi dute.



Gertatutako kalteen irudia. UDALA

'Apelliduak abizendu' kanpaina, martxan

Gaztelaniaz idatzita dauden abizenak euskal grafiara ekartzeko aukera dute herritarrek, *Apelliduak abizendu* egitasmoaren bitartez. Tramitea "sinplea eta erraza" dela nabarmendu dute Udaleko Euskara Zerbitzuko eta Bake Epaitegiko kideek

Txintxarri

Gaztelaniazko grafiaz idatzita dauden abizenak –Arregui, Churruca, Loyarte edo Echeverria, esate baterako– euskaldundu nahi dituzten herritarrek badute horretarako aukera *Apelliduak abizendu* kanpainaren bitartez. Beterri-Buruntzako gainontzeko herriekin batera, Lasarte-Oriako Udalak martxan jarri du kanpaina hori aurten ere.

Abizenak euskaldundu nahi dituzten lasarteoriarrek joan beharko dute Udaletxera eta Bake Epaitegira. Donostian jaiotakoek hiri horretako Erregistro Zibilean ere joan beharko dute. Prozesua martxan jartzeko hiru agiri bildu beharko dituzte: errolda-agiria, Udaletxean eskatuko dena; jaiotzagiri literala, Bake Epaitegian edo, Donostian jaiotako kasuan, Donostiako Erregistro Zibilean eskuratuko dena; eta NAN agiria. Ezkonduta daudenek edo seme-alabak dituztenek famili-liburua ere eskura izan beharko dute. Behin dokumentu horiek guztiak eskuratzean, Bake Epaitegira joan behar da eta bertan egiten dute aldaketa. Tramitea "oso erraza eta sinplea" dela nabarmendu dute Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzuko buru Jon Antxordokik eta Bake Epaitegiko langile Alberto Agirrezabalak.



Alberto Agirrezabala eta Jon Antxordoki, udaletxe atarian. TXINTXARRI

Erregistro zibilaren legearen 40/1999 erreformak ahalbidetu zuen deiturak zuzenean euskalduntzea, ordura arte abizenak aldatzeko prozeduraren bitartez egiten baitzen hori. Orduz geroztik, makina bat izan dira apelliduak abizentzera animatu diren pertsonak. Eskualde osoan egin daiteke tramite hori.

Lasarte-Oriako Udalak gutun bana bidali die 18 urte bete dituzten herritar guztiei, prozesuaren nondik norakoak azaltzeko. Zalantzak izanez gero,

euskara@lasarte-oria.eus helbidera idatzi daiteke, edo 943 37 61 84 telefonora deitu.

Izen-ematea zabalik

Maiatzaren 5ean eta 6an (asteazkena eta osteguna) izango da aurtengo Udaltop Udaletako Euskara Zerbitzuen Topaketa, online, iaz bezala. Izena emateko epea irekita egongo da apirilaren 23ra arte, ostiralez, egun hori barne. Eremu sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko gakoak emango dituztela iragarri dute antolatzaileek.



NEURE KABUZ

GORKA LASAS

Beti gazte

Aurreko batean aspaldiko lagun batekin egin nuen topo, Donostian, denda bat aurkitu ezinean atzera eta aurrera nembilela.

Aspaldikoa diot ikastolan genbiltzan sasoiaren gelakide izan baikinen. Aspaldikoa, urteak direlako elkar ikusi ez dugula, eta aspaldikoa, 50 urte bete-beteak ditugularik ez baikara gazte-gazteak.

Hala ere, gazte ikusi nuen laguna. Neure burua berarekin konparatu nuen, eta zinez gazteagoa iruditu zitzaidan. Bada jendea urteak betetzen ez dituela dirudiena, beti gazte dagoena, beti gazte sentitzen dena, eta hil arteraino beti gazte izango dena.

Gazte izatea oso preziatua da gure gizartean. Jende askok ahalegin handia egiten du gaztetasunari eusteko, edo behintzat, itxura hori emateko.

Dirutza xahutzen da kremak erosten, zimurrak disimulatzen, botox injekzioak jartzen, liftinga egiten, gorputz atal ezberdinetan ebakuntzak egiten... itxura gaztea izateko, horrek guztiak gazte mantenduko gaituelakoan. Baina ez ote itxurakeria itsua eta ilusio faltsua? Umetan denok nagusi izan nahi eta nagusitan berriz denok gazte. Zer du gaztetasunak denok sasoi horretan geratu nahi izateko?

Egia da gaztaroa luzatu zaigula. Berrogeita hamar urterekin hogeita hamarrekin egiten genituen gauza berberak egiten ditugu: kontzertuak, lagunekin afariak, kirol jarduerak, ... Baina noizean behin, bizitzaren aldarte beldurgarriak aurpegira begiratzen digu eta denbora aurrera doala gogorarazten digu. Gazteen hain gustagarri izaten den ispilu aurrean jarri, eta ikusmena ere galtzen hasia dugularik, badaudela bai, baina ez hainbesterako ezpain ondoko zimur, kopeta gaineko ile urdin eta begi ondoko pinportatxo erreparatzen dugu. Eta zer?

Hauek beharrezkoak dira osasun mental sano eta orekatsu bat izateko. Sasoi bakoitzak ditu bere gauza onak, eta heldutasunak ere baditu bereak: gazte bizi, gazte pentsatu eta gazte izan naizen seinale.

Udal-aurrekontuei alegazioak aurkezteko azken egunak

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi duenez, 2021. urteko aurrekontuei alegazioak jartzeko epea zabalik dago. Tramite horretarako azken eguna astelehena izango da, apirilak 19.

Udal-korporazioak martxoaren 15eko ezohiko saioan onartu zuen aurtengo aurrekontua, eta GAO Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuen gero. Legeak agintzen duena betetze aldera, alegazioak jartzeko epea ireki du eta, esan bezala, azken eguna datorren astelehena izango da.



Pertsonengan errotutako egitasmoa:
ikaslearen garapen integrala ardatz

2021-2022
IKASTURTEA

Izen ematea
Apirilaren
12tik 23ra

- ✔ Zientziak eta Teknologia
- ✔ Giza eta Gizarte Zientziak

Eskaera online zein ikastetxean egin daiteke.

Ikastetxera etortzeko aurretik hitzordua eskatu behar da.





Sei puntuko gai ordena eztabaidatu du udal-korporazioak, ostegun goizean. TXINTXARRI

Ezohiko saioa ere egin dute

Ezohiko udalbatzarra egin du udal-korporazioak, ostegunean. Kredituak aldatzeko dosierra onartu dute, partida berriak bideratuz, aurrekontuak handitzeko

Txintxarri

Aho batez onartu du Lasarte-Oriako udal-korporazioak ezohiko udalbatzarraren urgentziako deialdia, eta gai ordeneko bigarren puntuari ekin diote berehala. 2020. urteko ekitaldiko likidazioaren dosierraren berri eman dute horretan. Inongo alderdi politikok ez du hitza hartu nahi izan, eta, zuzenean, hirugarren puntuarekin hasi dira.

2021eko ekitaldiko kredituak aldatzeko gaur arte bideratu diren dosierraren berri eman dute, eta aurreko puntuan bezala, alderdien azalpenik gabe jarraitu dute gai ordenako hurrengo puntuarekin, laugarrenarekin.

Kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko dosierra 2021/1 zenbakiaz identifikatua onesteko eskaera egin du udal gobernu taldeak, eta, horrek bai, bozketa ekarri du. Alde agertu dira PSE-EE eta EH Bildu eta EAJ alderdiak. ELOP Elkarrekin Lasarte-Oria Puede, berriz, abstenitu egin da. Hortaz, aldeko hamahiru bozkekin eta bi abstentziorekin onartuta geratu da kredituak aldatzeko dosierra. Ondorengo taulan zehazten dira kreditu aldatzeko bidez bideratuko diren diru partidak.

EH Bilduk bozka azalpena egiteko hartu du hitza. Jakinarazi dute aurrekontuei ezezko bozka

3.577.632 euroko kreditu-aldaketa, aurtengo aurrekontuak handitzeko

Lasarte-Oriako Udalak 2021. urteko aurrekontuak handitzeko 3.577.632 euro jasotzen dituen espediente onetsi du ezohiko udalbatzarrean, partida berrietarako. Behin 2020. ekitaldiko likidazioaren berri jakinda, ekitaldi horretako gerakinak bideratuko dituzte partida berrietara, kreditu aldatzeko bitartez. "Presazko eta beharrezko" partidak dira; hala azaldu du Agustin Valdivia alkateak.

Horietatik 945.000 euro izaera sozialeko laguntza partidak izango dira:

- **320.000 euro**
Zuzeneko laguntzetan, alarma-egoeraren ondorioz ABEEE Aldi Baterako Enplegu Erregulazio Espediente batean sartu diren edo langabezia daudenei zuzendutako. Horietatik 20.000 euro energia-pobrezia arka borrokatzeko izango dira.
- **25.000 euro**
Bazterkeriaren aurkako laguntzak handitzeko.
- **400.000 euro**
Herriko ostalaritzari, merkataritzari eta zerbitzu-

pertsonalei bideratutako zuzeneko laguntzak.

- **200.000 euro**
Herriarrentzako bonuetan, herriko establezimenduetan inbertitzeko.

Duten izaeragatik, presazkotzat eta ezinbestekotzat jo diren gainerako partidak:

- **775.000 euro**
Kale Nagusiko 63-87ko aparkalekua berrurbanizatzeko.
- **382.292 euro**
Arranbide eta San Frantzisko kaleetako barandak berritzeko.
- **340.035 euro**
Herriarrek apirilaren 25eko herri-kontsultan lurpeko edukiontziei buruz hartzen duten erabakia praktikan jartzeko.
- **300.000 euro**
Tribunas kalearen ondoko parkearen hegala konpontzeko.
- **162.543 euro**
Herriarrei igogailuak eta arrapalak jartzeko edo etxebizitzaren eraginkortasun energetikoa hobetzeko diru-laguntzak finantzatzeko.
- **129.195 euro**
Hiri-saneamendua hobetzeko hainbat obretarako.

Kredituak aldatzeko espedienteak beste partida batzuk ere baditu, kopuru txikiagoak izanagatik ere, presazkoak edo beharrezkoak direnak:

- **60.000 euro**
Udal-azpiegiturak kontrolatzeko GIS (kartografia ariketa bat udalari udal-zerbitzuen berri ematen laguntzeko) sistema bat instalatzeko.
- **50.000 euro**
Haur-jolasak ordezkatzeko.
- **30.000 euro**
Hiri-altzarietako zenbat elementu ordezkatzeko.
- **29.307 euro**
Udalarentzako Laneko Arriskuen Plana egitea kontratatuzko.
- **25.000 euro**
Kirolegi berriak izango dituen kudeaketa eta jarduera-kostuak aztertuko dituen proiektu bat kontratatuzko.
- **15.000 euro**
Lasarte-Oriako ingurune irekiko lan bat egiteko.
- **12.100 euro**
Azkorte bidea hobetzeko.
- **8.000 euro**
Izurriteak kontrolatzeko partida handitzeko.

eman zieten arren, orain, kreditu aldatzeko alde egin dutela, horren bidez bideratuko diren diru-partidak herriar eragiteko beharrezkoak direla argudiatuz.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontu Auzitegiaren 2019ko ekitaldiko auditoria-txostenaren berri eman du bosgarren puntuan

alkateak, eta gai ordeneko seigarren eta azken puntuari heldu diote.

Oinarriak onartzea eta Lasarte-Oriako Udalak udalerriko merkataritzaren, ostalaritzaren eta zerbitzu-pertsonalen sektoreetan ekonomia suspertzeko eman beharreko aparteko

laguntzen deialdi berria egitea aztertu dute, horretarako jarduera prestatzeko inbertsioak eginez, COVID-19ari aurre egiteko. Alderdi guztiek bat egin dute puntuarekin, eta, aho batez, onartuta geratu da. Zortzi minutuko iraupena izan du ezohiko saioak.

'Pinocchio'-ren ipuin klasikoaren bertsio berria

Herriko familia ugari aukeratu dute antzerkia udaberri giroko larunbat arratsaldea igarotzeko

Txintxarri

Gorakada antzerki-taldeak *Pinocchio* ipuin ezagunaren bertsio berria oholtzaratu du kultur etxean. Egurra burdinagatik aldatu du Gepetto egitazko haurra izan nahi duen protagonista egiteko,

eta beste moldaketa batzuk baditu ere, istoriaren muinari eusten dio.

Alkate andreak iturri bat egiteko eskatu dio Gepettori, baina, hura beharrean, arima duen berunezko haurra egin du. Mandatua jasotzeko eguna helduz, agintariak

agindutakoa bete eta iturri bihur dezala esango dio artisauari, baina Pinocchio ez du nahi. Berak, haurra izan nahi du, ez iturria. Ika-mikan ari direla, polizia agertu eta Gepetto kartzalaratuko du haurren salerosketan dabilela ulertuta. Bera zer den ulertzeko ahaleginean dabilen Pinocchio bidegabekeria ikusita, handik ateratzen lagunduko diola zin egingo dio "aitari". Betiko istorioko pertsonaiak agertu dira: Katua eta Azeria, kilkerria, maitagarria, eta abar.



Goraka antzerki-taldea, 'Pinocchio' lana taularatzen. TXINTXARRI

Eremu gorrian dago Lasarte-Oria, murrizketa gehiagorekin

Apirilaren 9tik intzidentzia-tasa metatua 400 kasu baino gehiagokoa izan da eta, momentuz, gorantz doa

Txintxarri

SARS-CoV-2 birusa oldartuta dabil berriro ere, eta Lasarte-Oria ere nabaritzen ari dira horren ondorioak. Apirilaren 1etik 14ra bitartean 96 kasu baieztatu ditu Osakidetzak gure herrian –14ko datuak izan dira TXINTXARRI-k kontsultatu ahal izan dituen azkenak, edizioa itxi aurretik–, martxoaren 18tik 31ra baino 50 gehiago. Horren ondorioz, intzidentzia-tasa metatua 400ekoa baino altuagoa da; pasa den asteazkeneko, 493,57. Positibo pilatuen datuak hamalau egunka eman ditugu, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak tarte horretan metatutako kutsatzen arabera kalkulatu duelako intzidentzia-tasa metatua.

Adierazle hori 400ekoa baino altuagoa izan zenez astelehenean ere (456,81), Eusko Jaurlaritzak egun horretan eguneratu zuen zerrendan sartu zen Lasarte-Oria, eremu gorrian dauden herrienean. Hurrengo egunean, apirilak 13, gaur-gaurkoz indarrean daudenak baino neurri murriztaileagoak bete behar ditu herriak, gutxienez, datorren asteartera arte: besteak beste, udalerrri-mailako itxiera perimetrala eta ostalaritza-establezimenduen barnerbitzuko ordutegia murriztu izana –azpiko zatiduran azaldu ditugu neurriak heheago–.

Duela bi hilabetetik ez ziren egun bakarrean horrenbeste kasu atzematen Lasarte-Oria.

Apirilaren 13an, asteartearekin, hamabost positibo baieztatu zituen Osakidetzak; kopuru altuena izan da otsailaren 5az geroztik –orduko horretan hamasei kutsatze detektatu ziren–. Ikusteke dago zer nolako bilakaera izango duen positiboen kurbak, baina oso litekeena da datorren aste hasieran eremu gorrian jarraitzea Lasarte-Oriak. Horrek esan nahi du neurri zorrotz horiek bete beharko lituzkeela beste astebetez.

Kolore gorria nagusi


Apirilaren 14ko datuen arabera, Beterri-Buruntzako sei herrietatik lauren intzidentzia-tasa da 400ekoa baino altuagoa: Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Urnieta daude eremu gorrian. Andoain sartzear dago, eta Usurbil ere gertu, baina ez horrenbeste. Asteazkenean 33 kutsatze atzeman dituzte herri horietan: hamalau Hernanin, sei Andoainen eta Lasarte-Oria, lau Astigarragan eta hiru Urnietan. Usurbilen, aldiz, bakar bat ere ez.

Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan 960 kutsatze baieztatu dituzte apirilaren 14an, horietatik 397 Gipuzkoan. Osakidetzak 10.808 PCR eta antigenoen proba egin ditu kutsatze berriak atzemate aldera; positibotasun-tasa %8,7 izan da. Koronabirusagatik 442 pertsona daude ingesatuta, horietatik 128 sintoma larriekin, ZIU unitateetan.

Udalerria, perimetralki itxita

Apirilaren 12an eremu gorrian dauden herrien zerrenda eguneratu zuen Eusko Jaurlaritzak; horretan sartu zen Lasarte-Oria. Horren eraginez, neurri murriztaile gehiago sartu ziren indarrean asteartean eta, gutxienez, datorren asteartera arte mantenduko dira:

- **Udalerri-mailako itxiera perimetrala.** Herri mugakideetara joatea posible da, erosketak egin eta aire zabalean kirola egitera.
- **Ostalaritza-establezimenduek** 06:30etik 09:30era eta 13:00etatik 16:30era soilik zerbitzatu ahalko dute barrualdean. Terrazak zabalik egon daitezke egungo mugekin. Joko- eta apustu-etxeek muga berberak ezarri behar dituzte.
- **Kirola.** Barrualdeetan gehienez lau lagun, federatuak eta profesionalak salbu. Aldagelak eta duxak, itxita. Igerilekuetan, %35eko edukiera eta duxak banaka erabili behar dira.




Apirileko aurreneko hamalau egunetan martxo osoan baino 29 positibo gehiago atzeman dituzte Lasarte-Oria. TXINTXARRI



“Eginez ikasten dugu ingeniariaritzan”

Jokin Saralegi astigartarra Industria Prozesuetako Ekoteknologiak Ingeniaritza gradua ikasten ari da Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan, Orona Ideo campusean.



Non egin dituzu orain arteko ikasketak?, baduzu hobby edo zaletasunik?

Astigarragako Herri Eskolan hasi, handik Martuteneko Arantzazuko Amara eta azkenik Batxilergoa Donostian egin dut. Kirola egitea gustatzen zait, aire zabalean bada, hobeto.

Zergatik aukeratu zenuen Industria Prozesuetako Ekoteknologiak Ingeniaritza gradua?

Batez ere graduaren ikuspegi gustukoa nuelako.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Esperientzia ona izan da orain arte, nahiz eta birusak lehen urteak normaltasun osoz egiten ez utzi. Hala ere, proiektuak eta praktikak egiten moldatu gara ahal izan den neurrian, eta egoera berri guzti honetatik gauza asko ikasten ari gara aldi berean.

Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Eginez ikasi dugu. Lehenik eta behin teoria ikasi behar izaten dugu eta, ondoren, ariketa eta proiektuen bidez ikasitakoa errealitatean eraman eta praktikan jartzen laguntzen diguten helburuetara iritsi nahi izaten da. Lortzen ez denean ere, bidean egindakoaren ondorioak ateratzea oso positiboa izaten da.

Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna?, Eta zerbait hobetzeko?

Talde lanean aritzea gustukoa dut eta, hartara, taldekideekin batera ikuspuntu, ideia eta jende desberdina ezagutu. Lan hauek, gehien bat PBL izeneko proiektuetan gauzatzen dira, non denbora tarte zabal batean erronkak osoz aurrera ateratzen diren,

emaitzak ikustea lortu arte.

Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, Dual eremuan. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzun?

Orona kooperatiban ari naiz lanean, bertako bulego teknikoan laguntzaile bezala.

Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?

Ezagutzen ez nituen arlo batzuk ezagutzeko aukera eman dit. Horien artean, ikasitakoa nola aplikatzen den. Hau da, ikasketen osagarri egokia dela esango nuke hauekin lotura zuzena duelako eta, horrez gain, gradu honen irteera profesionalera bideratua dagoelako, beti ere prestatuago eta formatuago egongo zara etorkizunerako.

Lausotzen ari den magia

Pello Artetxe eta Jexux Izeta herritarrak dozenaka pertsonaiaren ahotsa eta euskarazko bikoizketaren erreferenteetako bi dira. Sortzen lagundu duten ogibidearen garai onenak eta txarrenak bizitza egokitu zaie azken lau hamarkadetan

Maitane Aldanondo

Ahotsa edonoren ezaugarri bereizgarrietakoa da, baina batzuek hainbat dituzte, eta zenbaitek, askori uzten diote. Maileguari esker, bestela mutu izango ziren atzerriko aktore ospetsuenak ere, Robert Redford, kasu; euskaraz entzuteko aukera izan dute ikus-entzuleek, eta belaunaldiz belaunaldi makina bat haurrek ama hizkuntza ikasteko nahiz barneratzeko bide izan dituzte bikoiztutako marrazki bizidunak.

Pertsonaia ugari entzunarazi dituzte Pello Artetxe (Lasarte-Oria, 1963) eta Jexux Izeta (Lasarte-Oria, 1953) bikoizleek azken lau hamarkadetan. Euskarazko bikoizketan ia hastapenetik aritu dira, jarduna eginez ikasten eta, hein batean, sortzen. TXINTXARRI-k elkartuta, ogibideaz eta sektorearen gainbeheraren eskutik helduta egindako ibilbideaz solasean aritu dira.

Bidearen aukera

ETB 1982 urte amaieran sortu zuten eta ezinbestean hari oso lotua dago euskarazko bikoizketaren bidea. Hasi eta ia berehala heldu zen Izeta erretiroa arte lanbide izango zuen horretara. Gogoratu duenez, 1983an Eresoinkatik deitu zioten ikastaro bat egin behar zutela esateko, eta ahots aldetik aukera bazuen, probatzea erabaki zuen. "Gafea izan naiz, egon naizen guztiak itxi egin zituzten... [kar, kar]. Martxoan fabrika itxi, ekainean elkarrizketa egin, eta, kontratatutakoak oporretan zeudenez, udan multzo bat sartu ginen". Ikastaroan, irakurketa, ahotsaren modulazioa eta mikro aurreko ariketak landu zituzten; eta irailean, lehen lanak egiten

hasi zen, nahiz eta eskolekin jarraitu.

Artetxe, berriz, 1984ko udan sartu zen. Soldaduskatik etorri berritan aldizkari batean ikusi zuen bikoizketa proba bat egingo zutela eta parte hartu zuen. "Testu bat irakurri eta fikziozko zati bat bikoiztu nuen". Aurrez, Kimika ikasi zuen Don Boscon eta bertako bi irakasleren ordezkapenak bikoizketa ikastaroarekin uztartu zituen. Hilabete batzuk geroago, ordea, aukeratzeko unea heldu zitzaion. Kimikako laborategiko probak eta lehen lan egunak bat egin, eta zirt edo zart egin behar izan zuen. Eta argi dago zer hautatu zuen. "Kimikako laborategia asko gustatzen zitzaidan, eta oraindik ere; baina bikoizketa magikoa da".

Imitazio jokoa

Topiko maltzur batek dio bikoizketa aktore frustratuen lana dela, alegia, pantaila aurrean agertzeko balio ez duenak atzealdean bilatzen duela kontsolamendua. Ustea ez dator bi lasarteoriatarrekin bat eta, gainera, eurak ez daude batere ados. "Jexux lotsagabea da, aktore lanak egiteko beti izan du erraztasuna, ez zaio kosta. Nik ez dut balio zuzenerako, urduri jartzen naiz, baina mikro atzean gozatu egiten dut, oso ondo pasatzen dut. Daukadan kreatibitateari ateratzen uzten diot". Izetak berretsi du lotsa ezezagun zaiola, nahiz eta

"GARAI HORRETAN DENOK ZORTEA EDUKI GENUEN, GAIKZI EGINEZ IKASI GENUELAKO"

hasieran grabaketetan gaizki pasatzen zuela onartu. "Baina eutsi, segi, eta 37 urtez lanean aritu naiz. Batzuek mikroaren sindromea zuten, beraien burua entzutea... eta uzten zuten. Niri *chupamicros* deitzen zidaten".

Baieztapen bihurrian sakonduz, pantailaren beste aldera pasata bikoizketan saiatu diren aktoreetako batzuk ez dira moldatu eta orduan balioetsi dute atzekoen lana. "Antzezteko beste teknika bat da, intonazioa...", zehaztu du Izetak. "Bikoizle onenak ez ziren aktoreak. Aktore batzuk hasi direnean euren burua bikoizten konturatu dira horren zailtasunaz".

Egun, erraza da edukiak jatorrizko hizkuntzan entzutea eta hala ohartzea batzuei mesede egiten diela bikoizketak; nahiz eta kontrako adibideak ere badiren. Ahotsa ondo hautatzen denean, berriz, bestelako ezustekoak ere izaten direla aipatu du Artetxek. Aktoreak eta bikoizleak antza izan dezaketela pentsatuta, sorpresa hartzen dutenak bikoizlea ezagutzearan.

Popeye eta Brutus

Erraz eta labur azalduta, beraien lan unitatea *take* izeneko zati txikietan banatzen da. Gehienez, hamar lerro eta bizpahiru pertsonaia sar daitezke bakoitzean. Bikoizlearen ardura da testua ahal badu memorizatzea eta irudiaren gainean entsegu batzuk egitea, testua aho mugimenduetara ondo egokitzen den ikusteko eta ea zuzendariak adostasuna ematen dion. Zati txikiak direnez, "freskotasuna" mantentzen laguntzen du.

Filmak, bideo korporatiboak, telesailak, dokumentalak... Askotariko ikus-entzunezkoak



Jexux Izeta eta Pello Artetxe lasarteoriatarrek 1980ko hamarkadan hasi ziren bikoizketa lanetan.

bikoiztu dituzte. Luzaroan egindako pertsonaiaren bati buruz galdetuta, *Popeye* marrazki bizidunetako telesail osoa elkarrekin egin zutela aipatu dute. Izetak Brutusi jarri zion ahotsa, eta Artetxek, protagonistari. Hala ere, beste pertsonaia maltzurrago baten izena da oraindik ere azkenari gogorarazten diotena: *Dragoi Bola*-ko Freezer.

Amaieraren hasiera

1980ko hamarkadan lana erruz egin zuten, urtean 2.000 ordu bikoiztera iritsi ziren. "Orduan dena zegoen egiteko eta dena egiten zen. Ikastaroak baziren, baina mikro aurrean jartzean ikusten zenuen oraindik ere ikasteko gauza asko zenituela. Gainera, bikoizketa prozesua da, egunero daukazu zer edo zer ikasteko. Garai horretan denok zortea eduki genuen, gaizki eginez ikasi genuelako. Euskarazko bikoizketa guk sortu genuen, oraindik ere normalizatzen ari zen hizkuntza batekin; geronek sortu genituen erreferenteak", gogoratu du Artetxek. Laster, ordea, atzean gelditu ziren urrezko garaiak.

Euskarazko bikoizketa, halaber, erakunde publikoek bultzatu dute: ETBk telebistarako eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Zineuskadirako. ETBrentzat lan egiten zuten hiru enpresa zeuden: Iruisoin, K2000 eta Edertrack. Haiek 40-60 bikoizleko lantaldeak zituzten, finko eta freelanceekin osatuta.

Lehen urte horietan eduki asko sortu zituzten eta 1990eko hamarkadan orduak murrizten joan ziren, 1.100 ingurura. Egoera ikusita, beste gauza batzuetan lanean hasi ziren batzuk eta langile autonomoak etxe batetik bestera mugitzen. Enpresek, berriz, egiturak "arintzeari" ekin zioten, langile iraunkorrak, aktore nahiz teknikariak, gutxituz. 2004an lanak hiru egiturei eusteko ematen ez zuela ikusita, ETBren aginduz, Donostiako Iruisoin eta Bilboko

HASIERAKO URTEETAN IA 2.000 ORDU BIKOIZTEN ZITUZTEN URTEAN, IAZ 230 IZAN ZIREN, AURTEN 270



Lehenak jada erretiroa hartu badu ere, urte horietan guztietan hainbatetan elkarrekin lan egiteko aukera izan zuten. TXINTXARRI

Edertrackek Mixer aldi baterako enpresen batasuna eratu zuten.

Arazo bakarra, bi ikuspegi

Neurri horiek ez zuten sektorearen gainbehera gelditu. Are gehiago, hartan sakondu egin zen hurrengo urteetan. 2013an SOS Bikoizketa Euskaraz plataforma abiarazi zuten euren egoera plazaratzeko. Enpresa guztietako kolektibo denak daude bertan: bikoizleak, administrariak teknikariak... Komunikabideetara jo zuten, Zinemaldian protesta egin zuten eta alderdi politikoekin

elkartu ziren irtenbide bat bilatu nahian. Artetxek argitu duenez ezer gutxi lortu zuten. "Hitz politikak bai, baina Bilduk bakarrik egin zuen zerbait. Gure eskaera Legebiltzarrerara eraman zuen gure egoera salatu eta irtenbide bat eskatzeko".

"Etsituta" zeuden, baina egoerak okerrera egingo ez zutelara uste zuten. Oker zeuden. 2014an Mixerrek lehen berregituraketa egin zuen. Teknikari eta administratibo gehienak kaleratu, kolektibo osoari jaitsiera orokorra ezarri, eta,

Donostiako egoitza kenduta, Bilbokoak bakarrik izatera pasatu zen. Aldi berean, bikoizketa orduen kopuruak behera jarraitu zuen. 2016an 109 besterik ez ziren izan.

Egoerak 2018ko esleipenarekin eztanda egin zuen. Bikoizleek bi elkarte sortu zituzten Bikoiztaile Euskaldunen Elkarte (Bieuse) eta Euskal Herriko Bikoizleen Elkarte (EHBE). Lehenak ez zituen baldintzak onartu eta oraindik ere abian duen grebari ekin zion; bigarrenak, berriz, nahiz eta

haiek gustuko ez izan, jarraitzearen alde egin zuen. Azken honek 30 bat ekoizle batzen ditu eta bertako zuzendaritza batzordeko kide da Artetxe. Bere ustez, diagnosi bera egiten dute bi kolektiboek, aldea, hortik ateratzeko tratamenduan dago.

Urte horretatik orduak gora egin dutela ikusita, iaz 230 izan ziren, EHBek greba hasi zuen urtarrilean, "gauzak argi uzteko garaia" zelakoan. Hilabete eskaseko lanuztea izan zen, eskatutakoaren asko lortuta lanera bueltatu baitziren. Besteak beste, 2018ko tasaren %80 berreskuratuta dute, baina lanaldia ordubete murriztuta; eta bakarka lan egiteko aukera lortu, *take* guztiak norberaren ahalmenaren arabera egin eta denbora murriztuz.

Hobekuntzekin batera, Mixerren konpromisoa ere badute erregulatzeko plataforma bat negoziatzen hasteko. Euskarazko bikoizketa arautzeko hitzarmen baten nahia aspaldikoa da eta aurreko hamarkadan erdiestekotan egon ziren; "egina zegoenean", ordea, "dena gelditu egin zen, mila arrazoirengatik". Gainera, ETBko arduradunek 40 bat ordu gehituko dituztela ere aurreikusitako diete, guztira, 270 izango dira.

'Streaming' plataformak, irtenbidea?

Euskarazko bikoizketa egoera ilun honetara zerk eraman duen galdetuta, Artetxek argi du: "Errealitatea triste da, baina jendeak ez du ETB ikusten", eta "borondate politikoa", hau da, dirua, falta da. Izetak gakoa ETBk euskarari ematen dion garrantzian dagoela uste du.

Bikoizketa euskararen normalizaziorako "arma oso interesgarria" da, baina gero

eta gehiago haurrei bideratutako lanetara mugatu da. Orotariko fikzioa, telesailak, pelikulak, dokumentalak... bikoiztu beharko lirakeela uste dute. Hori, ordea, aipatutako eskaera eta borondatea kateatzen dituen gurgil zoroak eta beste telebista batzuen aurrean ETBk duen ahalmenak baldintzatzen dute. Arazoa sakonekoa da, hortaz, ez dute itxaropen gehiegi. "Bikoizleak ez du behar bikoizketaren irtenbidea, gizarteak izan behar du".

Telebista ikusteko moduak eta bideak nabarmen aldatu dira azken bi hamarkadetan, *Streaming* plataforma horietan edukiak beraien hizkuntza ere egon daitezkeen eskatzeko mugimendu ugari piztu dira. Esaterako, Katalunian edo euskal hiztunak baino biztanle gutxiago dituen Islandian. Euskal Herrian abian dira Netflix euskaraz eta Disney+ euskaraz sinadura bilketak, bi ekoiztetxei euren katalogoetan euskarazko edukiak barneratzea eskatzeko. Lehenak xede dituen 15.000 sinaduretatik 10.500 lortu ditu; bigarrenak, 7.500 laguneri izenpea bildu nahi du eta 5.800ena jaso du.

Gauzatzekotan halako erabakiek eragin nabarmena izango lukete euskarazko bikoizketaren sektorean. Tamalez, halako ekimenek eraginen bat izango badute, hitzetatik harago joango den erakunde publikoen babes beharko dute.

"BIKOIZKETA EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO ARMA OSO INTERESGARRIA DA"

JESUITINAS DONOSTIA →

GIPUZKOAKO ZENTRO
BAKARRA GARA

NAZIOARTEKO
BATXILERGOA

www.jesuitinasdonostia.eus

info@jesuitinasdonostia.eus

943 21 23 07

Jesuitinas
DONOSTIA

Mundu osoko unibertsitateek
oso aintzan hartzen dituzten
ikasketak
bere kalitatearengatik.



UDAKO TXOKOAK

Zer egiteko aukera duzu?

2021

Sortu Alaitu Maitatu Jolastu
Ikasi Errespetatu Erabaki Eraiki
parte hartu

eta guztia, euskaraz egin! herrian eta elkarrekin!

Plaza
mugatuak!

Izen-emateak
Apirilaren 19tik aurrera:
www.labur.eus/txokoak2021
(maiatzaren 19ra arte)

Ei TXIKI, ADI!

HH3-HH4

(2016 eta 2017
bitartean jaioak)

EKINTZAK

- Psikomotrizitate saioak
- Ipuinetatik eta jolasetik abiatuta
asmakuntza plastikoa, gorputz adierazpena
eta soinuarekin jolasean
arituko gara.
- Tailerrak, Jolasak,
Irteerak...



HH5-LH2

(2013 eta 2015 bitartean jaioak)

EKINTZAK

- Jostakiroa saioak.
- Gorputz adierazpenaren
bidez mundu berri bat eraikiko dugu.
- Talde jolasak, Irteerak...



Espazioak:

TTAKUNENEA (Iñigo de Loiola kalea)
eta ORIARTE (Landaberri eraikina, Pintore, 2)

Hi, gazte! anima hadi!: LH3-LH6

(2009 eta 2012 bitartean jaioak)

EKINTZAK

- Abentura eta kirola.
- Natur ekintzak.
- Talde jolasak eta probak.
- Tailerrak, irteerak eta jarduera bereziak.



**UDALEKU
ITXIEN eta
MIXEN**
(udalekuak +
Udako Txokoak)
informazioa
laster izango
duzue



Ordutegiak eta prezioak

Hilabete osoa: Uztailaren 1etik 30era | 1. hamabostaldia: 1etik 16ra | 2. Hamabostaldia: 19tik 30era

	Ordutegiak	Seme-alaba bakarra	2 anai-arreba		3 anai-arreba	
HH3-HH4 Hilabete osoa	10:00-13:00	105 €	95 €		85 €	
	09:00-13:00	140 €	130 €		120 €	
HH5-LH6 Hilabete osoa	10:00-13:00	115 €	105 €		95 €	
	09:00-13:00	150 €	140 €		130 €	
HH3-HH4 1. edo 2. Hamabostaldia	10:00-13:00	1. 68 € 2. 58 €	1. 63 € 2. 53 €	1. 58 € 2. 48 €		
	09:00-13:00	86 € 74 €	81 € 69 €	76 € 64 €		
HH5-LH6 1. edo 2. Hamabostaldia	10:00-13:00	73 € 63 €	68 € 58 €	63 € 53 €		
	09:00-13:00	91 € 79 €	86 € 74 €	81 € 69 €		

*Ttakuneko bazkideek deskontua izango dute udalekuetako prezio guztietan.

Hilabete osoa
edo hamabostaldia!

Ordaintzeko modua
kontu korrontetik egingo da kobrantza.

GOIZTXOKO ZERBITZUA

09:00etatik 10:00etara

JANGELA ZERBITZUA

> 15:15ak arte.

Hilabetea: 105€

Hamabostaldia: 60€

*Plazak geldituz gero egun solteak har daitezke.

Informazio gehiago:
Tel: 943 37 14 48
aisia@ttakun.eus



UDAKO TXOKO ETA UDALEKUETARAKO BEGIRALE LAN-POLTSA

18 urte baino gehiago badituzu eta udaran begirale izan nahi baduzu,
bidali eskaera-orria beteta maiatzaren 9a baino lehen.

BALORATUKO DIRA:

- Begirale edo zuzendari titulua.
- EGA edo baliokidea den agiria.
- Ikasketak.
- Lan esperientzia.

BEHARREZKOA:

- Sexu delitua egiteagatik aurrekari penalak ez dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Eskaera orria: <https://labur.eus/ttakunbegiraleak2021>
begiraleak@ttakun.eus | Geltoki 4 Lasarte-Oria | 943 37 14 48



Nerea Eizagirre

Paola Vegak (Lasarte-Oria, 2002) zazpi urterekin futboleko izena eman nahi zuen, baina, lekuri ez zegoenez, Beltzak Errugbi taldeak sortu berri zuen eskolan parte hartzeko animatu zuten. Bere lehen partidaren odoretan egon arren, ez zuen etsi eta borrokan jarraitu zuen. Hamabi urte igaro dira geroztik eta egun Hernani Errugbi elkartearen kide da. "Oso gustura nago". Taldeak Euskal Ligako denboraldi hasiera polita izan du eta sailkapeneko lehena da. Vegarekin solastu gara taldeari eta errugbiari buruz gehiago jakiteko.

Aurten denboraldi hasiera ona izan du Hernani Errugbi taldeak.

Bai, pozarren gaude. Bai pandemiarengatik, baita ligan bizi izan genuenarengatik; iaz urte bitxia izan zen.

Iaz bi aukera zeuden, hamabostera edo hamabira jokatzeko. Hamabira jokatu gero, bigarren fasean ezin zinen lehen multzoan lehiatu.

Gu hamabosteko taldea ginen eta horregatik, nahiz eta ez ginen multzo horretarako sailkatu, bertan jokatzeko egokitu zitzaigun. Beraz, talde indartsuen aurka jokatu behar izan genuen. Duela hiru urte lehen mailan jokatu zen Getxoren aurka, Gernika edo La Unicaren aurka neurtu behar izan genituen indarrak. Gu harrিতта ginen: "Zer egiten dugu guk euren aurka?".

Talde handiak dira, jokalariek gehiago dituzte eta kalitate handikoak. Gainera, nahiko berde zegoen gure taldea. Jende berria zegoen. Ordiziako taldearekin bat egin genuen eta horiek ezagutzeko ere ez zen astirik, saio bakarra egiten genuen elkarrekin aste osoan.

Abendutik martxora arte partida guztiak galdu genituen eta horrek ere ez du laguntzen.

Gainera, ez zegoen konpromiso handirik. Entrenamendu batean hiru izan ginen bakarrik.

Aurten, beraz, egoera hobean dago taldea.

Bai, iazkoarekin alderatuta, gauzak aldatu dira.

Entrenamenduetan gehienak biltzen gara. Ongi entrenatzen dugu. Taldea osatu da eta gauzak egin daitezke. Eta hori emaitzetan eta egoeran ikusten da.

Orain gure multzoko lehenak gaude puntu tartearekin eta oso gustura gaude.

Zuen liga azarora arte ez da hasi.

"Zaila da lehen mailara igotzea. Eragile asko dago bidean"

PAOLA VEGA ERRUGBI JOKALARIA

Hernani Errugbi elkartearen Euskal Ligako taldeko kide da herritarra. Denboraldia ederki hasi dute eta sailkapeneko lehen postuan da taldea



Paola Vegak errugbian lehen pausoak eman zituen Michelin kirol guneko zelaietan. TXINTXARRI

Ziurgabetasun handia egon da denboraldi berri honen hasieran. Irailean zen hastekoa. Gero hilabete bat atzeratuko zela esan ziguten. Gero, eremu gorriaren arabera.

Aurten zaila da jakitea noiz jokatu duzun edo ez. Prest egon behar duzu horretarako eta listo.

Gure kasuan, pixkanaka joan gara prestaketa egiten eta benetan partidak hasiko zirela jakitean lan fisikoa handitu da.

Zein da denboraldiko helburua?

Partidak irabaztea eta goiko postuetan egotea da helburua.

Zaila da lehen mailara igotzea. Eibarrek lortu zuen duela gutxi, baina zaila da. Taldekide gutxi gaude eta eragile asko dago bidean.

Gainera, bertan mantentzea ere zaila da. Diru-gastua handia da: Madrilera, Sevillara...joan beharko ginateke eta mutilen lehen taldea ere batetik bestera dabil.

Gustatuko litzaidake eta lortzen bada primerakoa izango da. Baina zail ikusten dut.

Hamabost, hamabi eta zazpi kide arteko errugbia jokatzeko dituzu...

Bai, horrela da. Iaz Ordiziarekin batu ginen hamabosteko taldea osatzeko, eta aipatu bezala, hamabost eta hamabiko taldeak zeuden lehen.

Aurten hasiera batean ez zuten taldea hamabikoa izatea uzten. Hamabost edo zazpi izan behar zuen eta guk ez genuen jenderik taldea osatzeko. Beraz, zazpiko lehiaketara eman genuen izena.

Ederki entrenatu eta jokatu dugu eta hori amaitzean, hamabikoa jokatzeko aukera eman dute.

Hamarrera ere jokatu dugu eta hor ere moldatu gara. Bi pertsonen falta sumatzen da, baina ez da hainbesteko.

Zazpi eta hamabost kideen arteko lehen ezberdintasuna handia izango da, ezta?

Zazpiko lehiaketa azkarragoa da. Zelai osoa da eta zazpi jokalariek bakarrik daude talde bakoitzeko.

Dinamikoagoa da. Pum, pum, pasea, lasterketa eta entsegua. Eta berriro hasi. Oso azkarra da.

Hamabosteko partidak lasaiagoak dira. Txokea eta lurrera. Lasterketa, plakatu eta lurrera. Ezberdina da.

Zazpikoan arinago izatea eskatzen da, bizkorragoa. Zazpikoan atzeraka joan zaitezke,

nahi dituzun metro guztiak galdu ahal dituzu gerora irabazten badituzu. Zazpikoan ihesi egitea da bilatzen duzuna. Hamabosteko beti aurreraka da eta hutsunerik ez badago ere aurrera jolastu behar da.

Zer diziplina nahiago duzu?

Nik, garaiaren arabera, bat edo beste gustuko dut. Orain zazpiko gogoko dut gehiago.

Nik gainera atzelari postuan jokatzeko gustuko. Batzuetan hamabost lanetan aritzen naiz. Zelaian zer gertatzen den ikusi eta norbait ihesi badoa plakatzen dut.

Zu bakarrik zaude, buruz buruko da. Tentsio hori gustuko dut. Ihes egiten dizula, ba hurrengoan izango da.

Baina egun txarra baduzu eta plakaketarik egiterik ez baduzu, psikologikoki gogorra da. Nik iazko denboraldi hasieran Burgosen aurkako lagun arteko batean bizi izan nuen eta oso umore txarrez amaitu nuen partida.

Ez nuen inork hitz egiterik nahi. Plakatzen ez badut, psikologikoki gaizki egoten naiz. **COVID-19aren aurkako neurriek nola baldintzatzen dute errugbia?** Taldean temperatura eta horren kontrola egiten duen arduradun bat dago. Beste kirolen antzera, ezin da publikorik egon norgehiagoketan. Aldageletan ezin gara hamar baina gehiago egon.

Norbaitek positibo ematen duenean, abisua eman behar du, eta orduan, entrenamenduak eten egiten dira. Guztiek PCRa egin eta negatiboa izanez gero, lanera. Aurten behin egin behar izan dituzte beste kideek. Nik ez, aurretik positibo eman dudalako.

Partida batean norbaitek positibo ematen badu, bi taldeak berrogeialdia egin behar dute eta probak egin behar dituzte.

Partidetara kotxeetan joan behar gara. Entrenatzaileek eta gurasoek fitxa berezi bat izan behar dute eraman ahal izateko.

Horrelako gauzak dira. Partidak jokatzeko esate baterako ez dugu PCR-rik egiten.

Eta hirugarren denborarik ez duzue...

Ez pentsa, egiten da antzeko zerbait. Egia da ezin direla bi taldeak elkartu, baina taldeak aldageletan janari eta edari saskiak jartzen hasi dira. Horrela taldeek zerbait jaten dugu, eta hirugarren denboraren giroa mantentzen da.

Etxeberria eta Carbayeda, podiumean

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kideek ez dute atsedetik izan. Haimar Etxeberriak, apirilaren 11n, Lizarran lehiatu zen Robert Innova trofeoan lortu zuen hirugarren postua; Beñat Carbayedak, berriz, martxoaren 28an, Erretereria Hiria Sarian

Txintxarri

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako juniorrak, berriro ere, lehenen artean izan dira Lizarran eta Erretererian.

Apirilaren 11n, Haimar Etxeberriak III. Robert Innova trofeoan, hirugarren postuan igaro zuen helmuga eta Bar Restaurante El Volante Taldeko Xabier Zabalaren aurka lehiatu behar izan zuen azken metroetan postua lortzeko.

Viveros San Anton-Mardul taldeko Ander Altuna lehen tropelean iritsi zen eta zortzigarren postuan izan zen. Buruntzazpiko Daniel Fursenko kidea, berriz, 5 minutu eta 21 segundora iritsiz 76. postua eskuratu zuen.

Martxoaren 28an, berriz, Erretereria Hiria sarian postu bera erdietsi zuen Buruntzazpiko Beñat Carbayedak.

Limousin Oriako taldeko Unai Zubeldiak helmuga bakarrik igaro ostean, Carbayeda herritarrek Ampo-Ikolan Sport taldeko Daniel Casaisekin eta Dinuy taldeko Haritz Seinekin borrokatu behar izan zen azken metroetan podiumeko beste bi mailak erabakitzeko.

Viveros San Anton-Mardul taldeko Altunak, berriz, lasterketa utzi behar izan zuen.



Haimar Etxeberria, Lizarrako helmugara iristen. MARTIN EARLY

Txirrindulariek ez dute atsedetik izan Aste Santuan.

Apirilaren 11an, juniorrek, Euskal Herria torneoko XXXVI. Tabira Sarian parte hartu zuten Durangon. Altuna 22. iritsi zen, Carbayeda 44., Fursenko 67. eta azkenik, Buruntzazpiko Mikel Orbegozo 81. postuan sailkatu zen. Hiru egun geroago, Araban izan ziren Sallutegi sarian. Bertan Altuna 32. postuan amaitu zuen lasterketa, Fursenkok 68. eta Orbegozo 102. postuan igaro zuen helmuga.

Kadeteek, berriz, Nafarroan Gaztetxoak sariko jardunaldia izan zuten, Restaurante El Mirador saria. Buruntzazpi eskolako bigarren urteko kadeteek parte hartu zuten bertan, eta Eneko

Aranguren eta Adur Tapia 37. eta 39. izan ziren, hurrenez hurren.

Afizionatuak

Bestalde, Asier Pozo herritarra Eibar Txirrindulari taldean ari da afizionatueta 23 urte azpiko mailan. Lehen urtea izanik, maila berriari neurria hartzen ari da herritarra.

Denboraldia hasi zenetik hainbat probatan lehiatu da. Udaberri Saria, Aitor Bugallo oroimenezkoa, Lehendakari probako Gorlako Igoera, Euskaldun trofeo Zumaia Sarian, Lizarrako Cirilo Zunzurren Oroimenezkoan edo Espainiako Kopako Aiztondo klasikoan ere parte hartu du gazteak.

Sei futbol taldeetatik bik bakarrik lortu dute garaipena

Astigarragako Mundarro garaitu ostean, Ostadar SKTko Jubenilen Ohorezko taldea bere multzoko lehena da

Txintxarri

Futbol denboraldiak aurrera darrai. Ostadar SKT eta Texas Lasarteerra taldeek apirilaren 10en eta 11an jardunaldia jokatu zuten. Ostadar SKT Jubenilen Ohorezko mailako eta jubenil B mailako gaztetxoek bakarrik erdietsi zuten garaipena.

Ohorezko mailako taldeak 3-0 irabazi zion Astigarragako Mundarro taldeari eta horri esker, sailkapeneko lehen postuan da, Mundarrokekin zazpi puntura berdinduta.

Jubenil mailako B taldeak, berriz, Kostkas B 3-1 garaitu zuen. Taldea bere multzoko bigarren postuan da. Hala ere, lehen eta hirugarren sailkatuak diren Usurbil eta Euskalduna taldeek herriko taldearen antzeko puntuak dituzte, zazpi puntu.

Gainerako emaitzak: I. Erregionala, Donostia Kaleren lagunak 2 - Ostadar SKT 1; Kadeteen Ohorezko maila, Hernani 2 - Ostadar SKT 0; I. kadete maila, Usurbil 6 - Ostadar A 0 eta Texas Lasarteerra 0 - Danena 7.

Erregionalen Ohorezko taldeak zein jubenil eta kadete mailako A taldeek atsedena zuten.

Partida aipagarriak

Asteburu honetan, besteak beste, Ostadar SKTko Erregional Ohorezko taldeak bere multzoko bigarren sailkatu Urnietaren aurka jokatu du; I. Erregionalak Irauli Bosteko taldea garaitu behar du lehen postuetan mantentzeko; Jubenilen Ohorezko mailako

taldeak Hernaniren aurka jokatu du hiru puntuak eskuratzeko; Jubenil mailako B taldeak, berriz, sailkapenean Euskalduna aurreratzeko aukera izango du eta I. kadete mailan Ostadar A-Texas Lasarteerra derbia jokatu du da.

Bigarren fasea

Bestalde, Añorga KKEeko 1. Nazional taldeak fase berri bati ekin zion asteburuan.

Lehen neurketan, apirilaren 10ean, Taxoaren, Osasuna izan zuen arerio. Talde nafarra hasieratik nagusi izan zen eta emaitza 3-0koa izan zen. Ainara del Olmo herritarrek hasieratik jokatu zuen.

Osasunaz gain, Pradejon eta Logroño B taldeak izango ditu aurrez aurre Añorgako taldeak bigarren fase honetan. Lehenaren aurka, igandean, 16:30ean, jokatu du Rezola zelaian.

Multzo berri honetako lehen sailkatua zuzenean igoko da 2. mailara; bigarren sailkatua, berriz, puntuen arabera.

Reala, kopa txapeldun

Apirilaren 3an, Errege kopako finala jokatu zuten Real Sociedad eta Athletic de Bilbao taldeek, Sevillan. Reala izan zen garaile Oyarzabalek sartutako penaltiari esker.

Nahiz eta jokalaria edo talde teknikoko kideen artean herritarrik ez izan, bada kopa hori lortzeko bere aletxo jarri duen herritarrik taldean: Unai Olaizola tresnazaina.

Asier Sagastik, brontzea Bartzelonako Superkopian

LOKE judoko kideek, txapelketa eta gerriko beltza eta danak lortzeko azterketekin, denboraldian aurrera darraite

Txintxarri

LOKE judo saileko kideek Aste Santuko egunak besterik ez dituzte izan atsedena hartzeko. Bartzelonako Superkopa eta gerriko beltza eta danak lortzeko azterketak izan dituzte aste

hauetan. Guztietan lan ona egin dute judoek eta ataleko arduradun Gorka Aristegi pozarren dago gazteek lortutako emaitzekin, baita judoko txapelketak pixkanaka martxan jartzen direlako ere.

Asier Sagasti eta Abayuba Gutierrez Bartzelonan izan dira apirilaren 10ean eta 11n. Biek Bartzelonako Superkopako jardunaldian parte hartzera bidaiatu arren, Abayubak azken orduan min hartu, eta Sagasti bakarrik lehiatu da.

Herritarrek lehiaketa ona egin du. Bi borroka irabazi eta finalerdirako sailkatu da. Tamalez, ezin izan du aurrera egin eta finala jokatu. Azken borrokan, brontzezko domina eskuratu du.



Sagasti, dominarekin eta Gutierrez. LOKE JUDO

Bestalde, martxoaren 28an, LOKE judoko kideek gerriko beltza eta danak lortzeko azterketei aurre egin behar izan zieten Tolosan.

Bi gerriko beltz berri

Ederki joan zen guztia Lasarte-Oriako taldearentzat, eta taldeko kideak pozarren daude taldean bi gerriko berri dituztelako. Unai Guisadok eta Lucas Moralesek gerriko beltza eskuratu zuten eta Haritz Urdangarinek eta Eneko Eizagirrek, berriz, bigarren dana.



Martin ahizpak Espainiako txapelketan lortutako dominekin. Kontrol-lehiaketan parte hartu zuten Buruntzaldea IKTko kideak. B. XXI/B. IKT

Markak onduz, neguko denboraldiari agur

Martxo amaieran, Ainhoa eta Leire Martin ahizpak Espainiako txapelketan lehiatu ziren; Buruntzaldea IKTko igerilariak, berriz, Kontrol jardunaldia izan zuten Andoainen. Dominak eskuratu eta marka ugari berri zuztzen

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko igerilariak eta Bidasoa XXI taldean dauden Leire eta Ainhoa Martin ahizpek ederki amaitu zuten martxoan neguko denboraldia.

Espainiako open eta junior mailako neguko txapelketa jokatu zen martxoaren 24tik 28ra, Sabadelleko Can Llong igerilekuan eta Espainiako onenen artean lehiatu ziren Bidasoa XXI taldeko Ainhoa eta Leire Martin herritarrak. Ainhoak bost A finalerako txartela lortzeaz gain, absolutu-gazte mailako bost domina jantzi (urrezko bi, zilarrezko bat eta brontzezko bi) eta 200 metro bular-proban Euskadiko errekorra berri zuztzen.

Leirek, berriz, absolutu-gazte mailako hiru brontzezko domina eskuratu zituen.

Kontrol txapelketa

Buruntzaldea IKTko igerilariak martxoaren 27an, Kontrol Lehiaketako 5. jardunaldia izan zuten Andoaingo Allurralde kiroldegian. Bi txandatan, 60 igerilarik parte hartu zuten proban, horietatik hamazazpi Buruntzaldea IKTkoak izan ziren. Guztien artean, 23 marka pertsonal ondu zituzten eta marka horietako bi, taldeko 17 urteko errekor berriak dira.

Emaitza hauekin neguko denboraldiari amaiera ederra eman diote Buruntzaldea IKTko igerilariak, eta horregatik,

irakurketa positiboa egiten du Buruntzaldea IKTko arduradun Borja Apeztegiak. "Oso gorabeheratsua izan den denboraldiko lehen zatia amaitzeko balio izan zuen lehiaketa honetan gurek markak hobetzen jarraitu zuten, eta guretzat oso esanguratsua da hori".

Orain denboraldiko bigarren zatia begira lanean hasiko da taldea eta igerilarien helburuak lortzeko plangintza egokia egiten saiatuko dira egoera lagun badute. "Egoera pixka bat egonkorragoa bada, entrenamendu plangintza aldetik lan hobea egiteko aukera izango dugu udarako lehiaketei begira gurek euren helburuak lor ditzaten".

Artetxe, ekialdeko finalaren bila lau eta erdiko txapelketan

Intza KE pilota elkarteko kideek hainbat hitzordu izango dituzte asteburuan, Lasarte-Orian zein herritik kanpo

Txintxarri

Intza pilota elkarteko kideak lehiaketaz lehiaketa dabilta.

Senior mailan, Jon Pello Artetxe lau eta erdiko txapelketan ari da. Lehen fasea amaituta bere multzoko hirugarren

postuan sailkatu da herritarra. Nahiz eta Gipuzkoako Txapelketarako txartela ez lortu, Ekialdeko Txapelketako finalera iritsi daiteke Intzako kidea.

Larunbatean, 16:30ean, Michelingo kirol guneko

pilotalekuan EPLEko Aranburu izango du aurrez aurre finalerako bidean.

Bestalde, kadete mailako gaztetxoek trinketeko bikotekako lehiari emango diote hasiera.

Hernani 1 izango dute arerio, larunbatean 15:00etan, Irurako Ametsa trinketean.

"Trinketean bikoteka jokatu duten lehen aldia da eta esperientzia ona izatea espero dut", adierazi du Joxe Felix Solano Intza pilota elkarteko arduradunak.



Junior Errendimendu mailako Ostadar eta Easo partidako irudia. JOSE ANGEL HIDALGO

Ostadar Saskibaloiko taldeek ezin izan dute jokatu

Asteburu honetan, 1. mailako eta 3. mailako senior taldeek norgehiagokak izango dituzte, etxean

Txintxarri

COVID-19aren bilakaera dela-eta, Ostadar Saskibaloia ataleko kideek ezin izan zituzten lehengo astean zegozkien partidak jokatu. 3. mailako senior taldea, zein junior errendimendu eta partaidetza taldeak izan ziren egoeratik kaltetuak.

3. mailako senior taldeak astean zehar lagunarteko bat jokatu zuen. Tamalez, beste taldeko kide batek positibo eman eta Ostadarreko kideek berrogeialdia egin behar izan zuten. Ondorioz, Zarautzeko ZAST taldearen aurkako norgehiagoka aste honetara atzeratu behar izan zen. Larunbatean eguerdian jokatuko dute, beraz, Maialen Chourraut kiroldegian.

Junior partaidetza taldeak ere ZASTen aurka jokatu behar zuen. Kasu honetan, ordea, Zarautzeko taldekide batek eman zuen positibo, eta partida bertan

behera geratu zen. Neurketa aurrerago jolastea aurrekusten dute Ostadar Saskibaloiko arduradunek, baina data zehazteke dagoela adierazi dute.

Junior errendimenduko taldeak, berriz, Ordiziara egin behar zuten bidaia. Endika Marrahi taldeko arduradunak azaldu digunez, berak ez joateko erabakia hartu zuen. "Egoera berriro ere arriskutsua da eta erabakiak hartzea zaila izaten ari da", nabarmendu du. Neurketa hau ez dela jokatu ere aurreratu du.

Lehen postuetan

Asteburu honetan, 3. mailako senior partidaz gain, beste partida bat ere izango da Maialen Chourraut kiroldegian. Igandean, 11:00etatik aurrera, Goierri Ayma taldea izango du aurrez aurre 1. mailako seniorrak. Sailkapeneko lehen postuetan mantentzeko lehiatuko da taldea.

Ostadar Atletismoko kideek kanpoko denboraldia hasi dute

Apirilaren 10ean Gipuzkoako Atletismo Federazioak kanpoko denboraldiari hasiera emateko marken kontrol proba antolatu zuen Arrasaten.

Denboraldi hasiera izanik, Ostadar Atletismoa saileko hamabi kide bakarrik izan ziren bertan lehian. Lan ederra egin zuten atletak eta nabarmen zuten hainbat marka lortu zituzten.

100 metroko lasterketan, Alex Alkainek 12"12 denbora egin zuen eta Irati Valdiviak, berriz, 13"36. Pisu jaurtiketan, Mainer Rekondok 12,47 metroko jaurtiketa egin zuen. Eta Enara Gonzalez 5,21 metroetara iritsi zen, luzera jautsian.

Era berean, Ostadar Atletismo taldeko kideek adierazi dutenez, Bidasoa Atletiko Taldearen filiala izanik, apirilaren 24an jokatu den Kluban Espainiako Txapelketan talde kideren bat egotea espero dute.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Gael
Zorionak Gael, 3 urteko!! Egun zoragarria igarotzea opa dizu familiak, asko maite zaitugu!!



Nahia
Zorionak bihotza! 9 urte zutaz gozaten! Mila esker ematen diguzun guztiatik eta segi horrela! Maite zaitugu: Ekhi, Amatxo eta Aita.



Aizpea
Zorionak Aizpea!!! Ongi pasa zure urtebetetze egunean!!! Egunetik egunera gehiago maite zaitugu bihotza! Garazi, Elene, aitatxo eta amatxo.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
- Zure erabiltzailearekin sartu.
- Bidali zure zorion agurra formularioa bete.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.


Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.
- Ez ahaztu irudia mezuan txertatzea.


Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 16




Larunbata, 17




Igandea, 18




Astelehena, 19




Asteartea, 20



Asteazkena, 21



Osteguna, 22



GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 16	DE MIGUEL	EGUNeko FARMAZIAK: 9:00-12:00
LARUNBATA, 17	DE ORUE	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
IGANDEA, 18	DE ORUE	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
ASTELEHENA, 19	LASA	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
ASTEARTEA, 20	GIL	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
AZTEAZKENA, 21	ACHA-ORBEA	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
OSTEGUNA, 22	URBISTONDO	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani. 943 55 17 93

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

SUDOKUA

		6	2		4	8		9
8	9		3		5	4		
		4			9	6		
	4		1			5		
1				3		9	4	
		7	4		8	1		
								6
4	7		6		3	2		1
6	5				1		8	4

OHARRA

Jaiotzen berri eman

Zure haur jaioberriaren izena Txintxarri aldizkarian *Jaiotzak* atalean argitaratzea nahi baduzu, bidali haurren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

Heriotzen berri eman

Ingurukoren baten heriotzaren berri Txintxarri aldizkarian *Heriotzak* atalean eman nahi baduzu, bidali zendutako pertsonaren, izen-abizenak eta heriotza data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

Biyak-Bat elkarteko gizezko ile-apaindegia, apirilaren 23an irekita

Biyak Bat adinekoen egoitzako kideek TXINTXARRI-ri jakinarazi diotenez, gizezkoen ile-apaindegia datorren aste ostiralean irekiko dute, apirilak 23, 9:00etatik 14:30era. Beharrezkoa izango da hitzordua aurrez hartzea, 688 74 97 36 telefonoan.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZTA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

AZOKA TXIKIA

LANA
ESKARIA
Adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko eskaintzen dut nire buruak. Paperak eguneratuta dauzkat. Harremanetarako zerbakia, 651 51 92 69. Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketari... esperientzia handikoa eta profesionala garbiketari. Harremanetarako zerbakia, 673 55 62 89. Haurrak zainduko nituzke, ikastolara sartu bitartean. Harremanetarako zerbakia, 630 68 27 16. Haurrak zaindu, etxeko lanak egin, orduka pertsona adinduak zaindu edo tabernetako garbiketari lanak egiteko pertsona eskaintzen da. Harremanetarako zerbakia, 676 18 84 11. Pertsona eskaintzen da etxeko garbiketari lanak

egin, leihoak garbitu, adineko pertsonak paseatzeko edo umeak zaintzeko. Orduka edo externa. Harremanetarako zerbakia, 619 35 58 19. Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zerbakia, 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketari lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitalean gauak egiteko prest. 634 27 81 98.

konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 250 euro. 646 824 466.



SALEROSKETA
SALDU
Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, erosoa eta erraz erabiltzekoa. Oso

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia.
12€
(BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20€ (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646.824466

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzzaileak
Julene Iraola, Uxue Odriozola, Lide
Hidalgo, Egoitz Epelde, Erlantz
Ezeiza, Iker Lanchas, Iñigo Garcia,
Olatz Bardaji eta Igone Mendizabal.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.350 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Ikuskizuna. 2020. urtean, Kukai dantza taldeak eta Ttanttaka teatroak *Hnui Illa* ikuskizuna berrikusi eta eguneratu zuen. Joseba Sarrionandiaren unibertsora dantza, kantu eta ikus-entzunezkoen bidez begiratzen du. Joseba Sarrionandiaren Hnui illa nyha majah yahoo (Ondo zaindu beti, Yahho maitea) liburuan bildutako poematan oinarritutako dantza ikuskizuna da gaur ikusi ahaliko dena. Poesia, dantza, irudiak eta musika elkarrekin izango dira agertokian, elkar hartuta eta elkarren artean komunikatuta. Hala ere, dantza da ikuskizunaren ardatza; euskal dantza tradizionala, joera garaikideekin uztartuta. XVII. dantza zirkuituko ekitaldia da. **Manuel Lekuona kultur etxea, larunbata 17, 19:00etan.**

LARUNBATA 17

LASARTE-ORIA Ikuskizuna
20210. urtean Kukai dantza taldeak eta Ttanttaka teatroak elkarlanean sortutako *Hnui Illa* ikuskizunaren eguneraketa ikusteko aukera izango da. Sarrer, 5,50 euro.
Manuel Lekuona, 19:00etan.

OSTIRALA 23

LASARTE-ORIA Ikastaroa
Bizikletaren oinarriko konponketa eta mantenu ikastarokoa antolatuta du Ttakun Kultur Elkarteak. Lehen saioa apirilaren 23an izango da eta bigarrena, apirilaren 30ean. Izena emateko zuzendu kultura@ttakun.eus edo 695 78 53 89 zenbakira. Bazkideentzako prezioa 12 euro izango da eta ez bazkideentzako 15 euro. Ikastaroa non egingo den ez dago zehaztuta oraindik; izena ematerakoan emango zaie interesa dutenei informazio gehiago. **Zehazteke, 17:30etik 20:00etara.**

LASARTE-ORIA Musika
Zuzeneko emanaldietarako neurri zorrotzak direla eta, Gatibu taldeko kideek eszenatik eskaintako ohiko

formatua egokitu eta formatu akustikora eraman dute. Sarrerak agortuak daude. Aurreko diskoetako abestiekin batera, *Musikak salbatuko gaitu* izenburuko disko berriaren abestiak ere joko dituzte. **Manuel Lekuona, 19:00etan.**

OSTEGUNA 29

LASARTE-ORIA Hitzaldia
Zubieta Lantzen elkarteko bi kidek erraustegiaren inguruko gunean 2019an egindako lagin-ikerketen emaitzak aurkeztuko dituzte. Lasarte-Orian Aire Garbia plataformak antolatuta du solasaldia; euskaraz izango da. Beharrezkoa da aurrez izena ematea, hoguei lagunentzako tokia egongo baita. Horretarako, 689 71 90 36 telefono-zenbakira deitu dezakete herritarrek edo, bestela, lasarteorianairegarbia@gmail.com helbide elektronikora idatzi. Anbulategiko erabilera anitzeko solairua, **19:00etan.**

OSTIRALA 30

LASARTE-ORIA Ikastaroa
Ttakun KEk antolatuta duen Bizikletaren oinarriko konponketa eta mantenu ikastaroko bigarren saioa egingo da. **Zehazteke, 17:30etik 20:00etara.**

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Dardara

Ostirala: 19:00.

Raya y el último dragón

Igandea: 17:00.

LABURPENA

Dardara (JBGA)

Zuzendaria eta gidolaria: Marina Lameiro. **Produktzio zuzendaritza:** Itziar Garcia Zubiri. **Argazkia:** Marina Lameiro, Miguetzo Molina, Alvaro Garcia, Maddi Barber. **Musika:** Berri Txarrak. **Zuzeneko soinua:** Miguel Garcia Iraburu. **Kontzertuetako soinua eta nahasketak:** Mikel Santos. **Edizioa eta soinu nahasketa:** Iosu Gonzalez (Noisestudioa). **Herr.:** Euskal Herria (2021). **Iraupena:** 97 minutu.

Zaletasunaren isla

Berri Txarrak talde nafarrak 25 urte oholztan egin ostean, geldialdi mugagabea iragarri zuen. Agur modura mundu osoko gira bat egin zuen: Mexiko, Japonia, Alemania,

Estatu Batuak... Bidaia horretan Marina Lameiroren kamera izan zuten bidelagun. Zinemagileak jarraitzaile horien istorioekin irudi koral bat eraiki du. Denek pasio bera partekatzen dute: Berri Txarrak rock taldearen musika.

"Zaleak filmatzea izan da politena"

MARINA LAMEIRO ZINEMAGILEA ETA 'DARDARA' FILMAREN ZUZENDARIA

Apirileko agendako proiektio deigarrietako batez gozatu ahaliko dute lasarteoriarrek, gaur, ostirala, apirilak 16, Okendo Zinema Taldearen eskutik: *Dardara* filma proiektatuko dute kultur etxean, 19:00etatik aurrera. Zuzendariarekin hitz egin du TXINTXARRI-K, Marina Lameirorekin (Iruñea, 1986), ikus-entzunezko horri buruz gehiago jakiteko.

Duela ia hilabete estreinatu zenuten Dardara dokumentala zinema-aretoetan. Zer nolako harrera izaten ari da?

Iritzi guztiak oso-oso onak izaten ari dira, profesionalen aldetik eta zaleengandik, pertsona anonimoengandik, aurreneko hiru asteetan egunero jasotzen nituen mezuak, eskertzak... Oso polita izan da hori guztia jasotzea.

Gaur proiektatuko dute filma Lasarte-Orian, eta ikusmina sortu du: sarrerak erosi eta erosi ari dira ikus-entzuleak. Zer ikusiko dute? Nola azaldu Dardara zer den?

Ez da ohituta gauden musika-dokumental mota. Musika badago eta errealitatea ere bai, baina elkarrizketarik ez, esate baterako. Zinema da. Berri Txarrak taldearen bira filmaren eszenatokia-edo da, ez da taldearen ibilbideari buruzko dokumental bat: musikak eragiten duen pasioari buruzko ikus-entzunezko bat da, eta bizitzari buruzkoa ere bai. Pertsona desberdinek hartzen



'DARDARA' FILMA

dituzten erabakiak aurrera egiteko; hori unibertsala da. **Kosta egin zaizu ordu eta erdi pasatxoko film hori egiteko materiala aukeratu, eta grabatutako beste hainbat gauza kanpoan uztea?** Nahiko zaila izan da, egia esan. Muntai momentu zaila izan ohi da, hainbeste material grabatuta... Pertsonaia asko filmatu nituen eta ez nituen guztiak sartu, asko maite nituen gauza ugari utzi behar izan ditut kanpoan, filmaren onerako. Ez dut gogoratzen nor esan zuen, baina bat nator esaldi honekin: uko egitearen artea da muntatzea. **Lengoaia zinematografikoari dagokionez, zer plano mota**

"ASKO MAITE NITUEN GAUZA UGARI UTZI BEHAR IZAN DITUT KANPOAN, FILMAREN ONERAKO"

lehenetsi dituzu istorioa kontatzerako orduan?

Oso argi neukan aldendu egin nahi nuela musika-taldee buruzko ikus-entzunezkoetan oso sarritan ikusten ditugun plano ikusgarri horietaz, bideo-klipen edo zuzeneko kontzertuen lengoiaz. Plano luzeak egin nahi nituen, protagonistak gertutik erakusten zituztenak, lehen planoak batez ere; emozioak agertzen dira hor, ikus-entzuleari aukera ematen diozu pantailan dagoen pertsona hori ezagutzeko neurri batean. Filmaren gauzarik politena izan da kontzertuetara joatea eta kamerari bira ematea: taldeari begira egon ohi gara beti, eta, emanaldi horietan, bi orduz zaleak filmatu nituen, haien emozioak. Oso polita izan zen.

Irakurri elkarrizketa osoa
www.txintxarri.eus atarian

